i botika
Medikamentuei buruzko herritarrentzako informazioa
Osakidetza
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD
www.osakidetza.euskadi.eus/ibotika
2017 • 35 zk.

# GARATXO ARRUNTAK

- Garatxo arruntak giza papilomaren birus-mota jakin batzuek azalean eragiten dituzten infekzioen zioz sortzen dira.
- Sarritan eskuetan agertzen dira, baina gorputzeko edozein ataletan aurki daitezke.
- Maiz agertzen dira haurtzaroan, eta kontaktu bidez hedatzen dira.
- **Berez desager daitezke, baina izan liteke horretarako hilabeteak edo urteak behar izatea.**

## TRATAMENDUA

Ez dago birus honen aurkako tratamendu zehatzik. **Tratamendu bat ere ez da % 100 eraginkorra.** Garatxo batzuk tratamendua egin arren berriz ager daitezke.
Azaleko lesioak ezabatzean, ohiko ehunetan ahalik eta kalterik txikiena eragiten saiatu behar da.



Sarritan **produktu keratolitikoak** erabiltzen dira. Produktu horiek **azido salizilikoa edo/eta azido laktikoa** dituzte, eta azalaren gainazalean dauden geruzak desegiten dituzte. Soluzioa edo partxea erabil daiteke.

***Soluzioa erabiltzeko:*** gauez erabili behar da. Lehenengo, tratatu beharreko azalera limatu behar da. Estali garatxoaren ingurua baselinaz edo pomada babesgarriren batekin (azal osasuntsua ez kaltetzeko). Jarri tanta bat garatxoaren gainean eta utzi lehortzen (2-3 minutu). Estali esparatrapu ez porotsuarekin gau osoan. Errepikatu eragiketa hori gauero, garatxoa desagertu arte. Gutxigorabeherako iraupena: 2-4 aste.

***Partxea erabiltzeko:*** jarri garatxoaren gainean. Aldatu egunero, eta, kentzean, garatxoa limatu.
Errepikatu tratamendua garatxoa desagertu arte.

Beste aukera bat ere badago: **krioterapia.** Tratamendu hori izozte-teknikaz baliatzen da garatxoak desagerrarazteko. Teknika hori kontsultan egiten da, nitrogeno likidoa erabilita. Farmazian errezetarik gabe eros daitezkeen beste produktu batzuk ere badaude. Erabili baino lehen irakurri arretaz esku-orria, produktuaren arabera ezberdinak baitira horiek erabiltzeko gomendioak.

## KONTUAN HARTU:

* Ez erabili produktu horiek azala narriatuta, handituta, zaurituta edo infektatuta baduzu.
* Azaletik irteten den lesio oro ez da garatxoa; garatxoen kontrako produktuak beste lesio batzuetarako, orbanetarako edo jaiotze-marketarako erabiltzea kaltegarria izan daiteke.
* Oin-zolako garatxoak -“papiloma” ere deitzen direnak- tratatzea zailagoa da, duten kokapenagatik. Batzuetan gogorduren gainean agertzen dira.
* Garatxoa desagertzen ez bada, kontsultatu zure osasun-profesionala.

Bibliografia: *Verrugas Víricas* http://www.ics.gencat.cat/3clics/main.php?page=GuiaPage&idGuia=219&lang=CAS

Egileak: Iñigo Aizpurua, Alfonso Casi, Isabel Elizondo, Laura Gancedo, Alberto Gartzia, Itxasne Lekue, M.ª José López, Oihana Mora, Carmela Mozo, Corpus Peral, Karmele Pérez, Isabel Porras, Raquel Roca, Mª Teresa Santamarta, Juan Uriarte.

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Hemen bildu den informazioaren helburu bakarra, hain zuzen ere, informazioa ematea da, eta ez zure osasun-profesionalak eman dizkizun gomendioak ordezkatzea. Erabat debekaturik dago dokumentu hau promozio helburuetarako erabiltzea.

ISSN: 2444-7099 • L.G.: VI 122-2015
CC BY NC ND

i botika
Información ciudadana sobre medicamentos

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

www.osakidetza.euskadi.eus/ibotika

Nº 35 • 2017

# VERRUGAS VULGARES

- Las verrugas vulgares son consecuencia de una infección de la piel por algunos tipos del virus del papiloma humano.
- A menudo se localizan en las manos, aunque pueden aparecer en cualquier parte del cuerpo.
- Se observan con frecuencia en la infancia y se transmiten por contacto.
- **Pueden desaparecer por sí solas, aunque es posible que pasen meses o, incluso, años.**

## TRATAMIENTO



No hay un tratamiento antiviral específico.
**Ningún tratamiento es 100% efectivo.** Puede que algunas verrugas reaparezcan a pesar del tratamiento.
Hay que intentar eliminar las lesiones cutáneas causando el mínimo daño en los tejidos normales.

Es frecuente utilizar **productos queratolíticos**, con **ácido salicílico y/o láctico**, que deshacen las capas más superficiales de la piel. Están disponibles en solución o en parche.
***Cómo utilizar la solución:*** por la noche, lima la superficie a tratar. Cubre los alrededores de la verruga con vaselina o pomada protectora (para evitar dañar la piel sana).
Aplica una gota sobre la verruga y deja secar (2-3 minutos).
Cubre con esparadrapo no poroso durante toda la noche.
Repite cada noche hasta la desaparición de la verruga.
Duración aproximada: 2-4 semanas.

***Cómo utilizar el parche:*** aplícalo sobre la verruga.
Cámbialo diariamente y, al retirarlo, lima la verruga.
Repite el tratamiento hasta que la verruga desaparezca.

Otra alternativa es la **crioterapia.** Este tratamiento emplea la congelación para eliminar las verrugas. Esta técnica se realiza en consulta con nitrogeno líquido. Existen otros productos que se pueden adquirir en la farmacia sin receta. Lee el prospecto antes de usarlo ya que las recomendaciones de uso varían en función del producto.

## TEN EN CUENTA:

* No usar estos productos en zonas de piel irritada, inflamada, herida o infectada.
* No toda lesión que sobresalga es una verruga y puede ser contraproducente tratar con antiverrugas otro tipo de lesiones, lunares o marcas de nacimiento.
* Las verrugas plantares, conocidas como “papilomas”, son más difíciles de tratar por la localización y a veces se asientan sobre callos.
* Consulta a tu profesional sanitario si no desaparece la verruga.

Bibliografía: *Verrugas Víricas* http://www.ics.gencat.cat/3clics/main.php?page=GuiaPage&idGuia=219&lang=CAS

Elaborado por: Iñigo Aizpurua, Alfonso Casi, Isabel Elizondo, Laura Gancedo, Alberto Gartzia, Itxasne Lekue, M.ª José López, Oihana Mora, Carmela Mozo, Corpus Peral, Karmele Pérez, Isabel Porras, Raquel Roca, Mª Teresa Santamarta, Juan Uriarte.

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

La información aquí contenida tiene únicamente finalidad informativa y en ningún caso sustituye las recomendaciones de tu profesional sanitario.
Queda totalmente prohibido el uso de este documento con fines promocionales.

ISSN: 2444-7099 • L.G.: VI 122-2015

CC BY NC ND